

## KORRIKARAKO MONOLOGOAK



### LOLI ASTOREKA

*Trikitrixa musika bat entzuten da, melodia zahar bat, oso herrikoia, irrintziak eta guzti. Eskenatokian oraindik ez da inor ageri. Azkenean Loli sartuko da, “baserritarrez” jantzita, haserre bizian.*

Ezetz ba, ez noala ezer eitxen. Argi eta garbi esan neuzon zuzendarixari, eta gionistari eta... mundu guztixari ni prest nengoela gala hontan parte hartzeko, baie ez nebala gure “bizkaitarrarena egin”. Argi esan neuzuen: ez dot gure topikorik, eh?

Ba hala, topikorik ez bozu gure topiko y medio. Zelan eta poxpolinez jantzita! “El Caserio”-ko Ana Mari ematen dot. Zergatik ez dostazue aizkora bat emoten, Caja Laboraleko kalendario osoa egiteko!

*Arropak kentzen hasten da.*

Ba jakin daizuen: ni ez naiz baserritarra, letxes... Ez dakit dantza eitxen, ez dot sekula talorik jan, ez jat mendia gustetan, baserriko lanak goragalea emoten daust. (Musikoei) Niri ez jata trikitrixa gustetan. Niri jazza gustetan jata, musika minimalista, rock underground. Ni hiritarra naiz, la letxe, hi-ri-ta-rra!! Argi dago?

*Gona kentzen hasten da. Gonaren azpian azpikogona dago.*

Zuek lasai, eh?, aktore bat beti dago biluzteko prest, gidoiak exijitzen badau, eta kasu hontan exijitzen dau, horixe exijitzen dauela.

*Erregidorea sartzen da, bionbo batekin. Loliren arropa darama. Bionboa jarri eta Loliren arropa gainean ipiniko du, zintzilik.*

Ez da beharrezkoa, gizona!! Ez noa desnudo totala egitera, ze uste dozu!! (...) Jesus hau da ñoñeria zuena, gero neu izango naz baserritarra, ja! Batzuk famea eta beste batzuk lanea.

*Bionboaren atzean hitz egiten jarraituko du aldatu bitartean. Burua ikusten zaio. Ez du askorik tardatuko.*

Ni Bernagoitikoa naz. Bernagoitia herri txikixa da. Autopistatik ikusten da, Durangoko papeleraren parean, Mugarra azpitan. Lau etxe eta taberna. Taberna nire familiakoa da. Iñoz hortik pasatzen bazarie, konbidauta zagosie... Lehenengo tragua bakarrik, eh?

*Kaleko arropaz jantzita urtetan da bionboaren atzetik.*

Baie ez naz herrixan bizi, ez pentsa. Bilbon bizi naz, 30 urte daroadaz bilbon. Eta holan itxen badot berba, bestela ezta kitelako da. Eta sekulakoak pasa dodaz nik holan berba itxeagatik. Oiñ ja ez, oiñ gauzak aldatu direz, asko, gainera. Oiñ euskalkiak baloratu eitxen direz, baina lehen...

Ederto akordaten naz etxean lehen aldiz ETB ikusi gendunean. Ama ibili zan antenarekin gora eta behera. Zelako ilusiñoa!! Ez zen gutxiagorako. Azkenean euskarazko telebista bat, gora gu eta gutarrak!! Aitite batezbe, aitite pozarren egoan. Berak ia ez ekian erderaz, eta ezin eban television espainola ikusi. Pantailaren aurrean plantau ginen hirurak. Gizon batek urten eban, korbata eta guzti, eta berba eitxen hasi zan, holan gitxi gora bera (Oso euskera ahozkatua eta azpimarratua) “*Kaixo, lagunak, honenbestez tenorez dagoeneko, behinik behin bada, nolabait, alegia, beraz, alajaina.*” Aititek txapela hartu eta ziztu bizian urten eban etxetik, ohiukatuz “*Martzianoak etorri direz!! Martzianoak!!*”

Amari galdetu neutson, “ziur ETB dela, ez al da izango, ba, Kasajistaneko telebista”? Baina ez egoen dudarik, txoritxua egoan pantailan, gure etxetik Iurretako estudioen teilatu ganean ikusten genduen berbera. Ulertu zazue, guk artean ez genduen batua iños

entzun. Amak esan eban: “Hori euskerea bada, orduan guk zer egiten dogu: batusi??

Hau da markea, eh? Beti guri tokatzen jaku marroia: Frankoren garaian analfabetoak euskeraz eitxeagatik, orain oster, analfabetoak euskeraz ez genekielako. Txisteak esaten dauen bezela, kaka urrea balitz, pobreak ipurdi barik jaioko zirean.

Kriston konplejua sartu jakun herrixan. Herriko sarreran lehen kartel bat egoan esaten ebana: “Bernagoitia, herri euskalduna.” Aldatu ein genduen, badaespada: “Bernagoitia, herri ¿?”.

Ni artean ez nintzan Bernagoitian bizi, Bilbon nengoen, teatroa eitxen, beti gastelaniaz. Ez jatan burutik pasau ere eitxen euskeraz lan eitxea. Keba, ni ez nintzan euskaldune. Behin bakarrik egin nuen froga bat euskarazko pelikula baterako. Pertsonaia tipa moderno bat, pasota bat zan. Esaldi laburra zan: zigarro bat ahoan, sua eskatu behar neban. Baie testuak zera esaten eban: “Kaixo, su emango zenidake, arren?” Eta zer gurozue, nik asko erretzen dut, mila aldiz eskatu dot sue, euskeraz, gastelaniaz, eta baita txinoz ere. Baina sekulan ez dot “Kaixo, su emango zenidake, arren” esan. Ez jatan natural irteten. Zuzendarixak: “ezin duzu suetoago esan?” Eta nik behi eta berriro “Kaixo, su emango zenidake, arren?” eskobaren kirtena baino tentsoago. Azkenean finlandesa batek egin eban papera. Euskeraz hitzik ez ekien, baina zetak eta eseak oso ondo bereizten ebazan... Eta nahiko “neumatikoa” omen zan, gainera. Hori izan zan neure esperientzia bakarra.

Bernagoitiara asteburuetan joaten nintzan, eta gauzak berdin jarraitzen eben. Futbol partiduak itzulpen simultaneoagaz ikusten ebezan tabernan. Etebekoak esaten eban, por ejemplo: “Danik baloia bereganatu areaertzean, defentsaren sarrera sahiestu, berealdiko abagunea erdietsi dezake, inguruan areriorik ezean da, jaurtiketa bortitza eta bufff, baloia hodeietara...” Gure itzultzaileak: “Danik baloia arrapau, defentsa driblau, sekulako aukeria deko, bera bakarrik dao ta, kriston ostikue ta... dioooooosss!! ule bategatik kanpora!!” Beno, bide batez esan behar da gure itzultzailea forofu hutsa zala, baina sikan herrihan partiduaz enteratzen zirean.

Behin ETBko periodista bat etorri zan preguntetan, mikrofonoa eta guzti. Hor ibili zan etxerik etxe: “Egun on, andrea, zer deritzozu Aldundiak ezarritako Balio Erantsiaren Gaineko Zergari?” Inork ez eban ezebez entenditzen, baina disimulatu eitxen eben. Eta honek (Buruarekin baietz eginez) “Hummm” eta besteak (Ezetx eginez) “Ahmmm” Eta besteak... (Halan holan eginez) “Msmmm”, eta horrela danak. “La ley del silencio”. Handik aurrera herriko sarrerako kartelean “Bernagoitia Herri Mutua” jarriko eban, baina sikan ez eben esango herrixan ignorante hutsak zireala.

Azkenean abadeak dezisiñue hartu eban: herri guztia alfabetatze kurtso batera sartuko zan. Bestela herriko sarrerako kartelan ipini beharko eben “Bernagoitia, herri analfabetoa”. Den denak joan zirean. Beno, denak aitite izan ezik. Aititek esan eban: “Ni ez noia hara!! Ni ez nas analfabetoa!! Letrak ikasi nebazan, errepublikan!!”

Alfabetizaziñoak mirariak egin ebazan herrixan. Lehen andra bi kalean topatzen bazirean, holango zeozer esango eben: “Epa, Juana, zelan zaoz, ba? Ba zer gurosu, apurka apurka tiretan. Eta Aitite, almorranagas ondiño? Bai, koitaduek ezin dau kakarik ein” Oin oster: “Kaixo, Juana nola zaude nolabait esateko? Ba halamoduz nagoela esan niezazuke, izan ere. Eta aitona, hemorroideen arazoarekin jarraitzen ote du? Bai, andrea, sabelustutzea biziki eragozten dio.”

Batez ere bokabularioa ikasi eben pilo bat: beno, barkatu hiztegia esan gura neban. Esatebaterako: herrixan, jakinduriaren argixa sartu baino lehen, lehioari benatea esaten eutzen. Asko kostatu jakon jendeari berba berrixa burua sartutea (Zaharraren abotsa ipiniz) “Leoia?” “Ez, amama, “lehioa” hatxe interkalatuarekin.” “Hatxe interkalatua? Eta kristalik ez?”... Azkenean lortu eben Bernagoitia itxuraldatzea: bentana guztixak kanpora eta etxe guztietan lehioak ipini ebezan.

Geroago tipo bat etorri zan herrira, lingüista bat, gure euskararai buruz preguntak eiten. “Euskalkiei buruzko tesi doktoralala egitera” ei zetorren, baina herrixan ez ziren batere fidatzen. “Hori euskal

gobernuak bidali dauen komisario linguistikoa da, fijo! Txarto erantzuten badogu, zas! Erdeldunak bizitza guztirako! Erne ibili.” Gure tabernara sartu zan aurrena. Libreta atara eta interrogatorioa hasi eban. Lehioa seinalatu eban: “Hori zer da?” preguntatu eban. Amak seguritate handixarekin: “Hori **lehioa** da!! ” Baina tipoa ez zen konforme geratu, antza. “Bai, baina zuek zelan esaten diozue?” Amak eta biok alkarri begira, urduri. Amak berriro. “Lehioa, esan dotsut ba!!” “Baina beti esan duzue horrela?” Ama zurbil zurbil egoan, nerbio hutse, eta nik urten neban orduen. “Bai, jauna, geure etxean hori lehioa izan da, de toda la vida!!”

Hala ere tipoa ez zen konforme geratu. Aititeri deitu eutsen. Ai ama!! Aitite alfabetatu barik egoan, a ze lotsa pasatu behar genduan!! “Eta zuk jauna, zelan esaten diozu horri? Ni komisario linguistikoa eta aititeren artean parau nintzen. “Aititek ere “lehioa esaten dau, ze uste dozu ba? Beitu. (Keiniaz lagundurik) Aitite, itxi lehioa. I-TXI –LE-HI-O-A!!!” Aititek ez eban entenditzen bapez. Gainera gerra zibiletik gorra zen. Eta esan eban. “Ez dotust aitzen Loli, kanpoan zarata asko dao ta. Itxon, bentania sarratuko dot”.

Aititek “bentania sarratu” eban, lasai lasi, ezertaz konturatu barik. Ama eta biok imajinatu, zelako lotsa!! Komisario linguistikoak libretan apuntatu eban esaldi osoa. Ala, fitxatuta geunden. Baina ez. Halako batean tipoak esan eban: “Oh, bentania sarratu” ze interesgarria!! Ze interesgarria? Nola ze interesgarria?

Ba bai, lagunak, guk jakin barik, gauzak aldatu zirean munduan. Bakizue zer gertatzen dan, moda batzu joan da beste batzu etorten direzela. Orain “Especies en vias de extincion” delako horiek modan ei egozan: Baleak, errinozeronteak eta euskalkiak. Bernagoitiako eran berbaitxea ondo ikusia egoan. “De buen tono” esaten dan moduen. Herriko sarrerako kartela kanbiau genduen: “Bernagoitia, hizkuntza minoritarioa berbaitxen duen herrixa”

Niri toki guztietatik deituten hasi zirean, mundu guztiak nahi eban nirekin kontau. “Zure herriko euskera jator hori”, esaten eusten. Nik ez neban ezer entenditzen, baina zer egingo neban ba, aprobetxau! Eta hemen neskame bizkaitarrarera egiten neban. Han

mediku bizkaitarrarena. Hor prostituta bizkaitarrarena. Harago astronauta bizkaitarrarena... Haratago india txeyene bizkaitarrarena... Eta ez naz kejatzen, zelan ba! Bizimodua aurrera ateratzen dot holan, ederto. Baie nik argi utzi gura dot, ni ez naizela baserritarra. Ni hiritarra naizela.

Horregatik, Korrikaren galarako deitu daustenean, pentsatu dot, Zas!! Badakit hauek zer gura daben. Bizkaitarrarena egitea ostabere. Pues vais daos, chicos. Entzun, taloa baino nahiago dot pizza. Eta zimaurrea baino Cannel number five. Eta Bernagoitian alfabetatze kurtso hura egin ebenean ni Bilbon nengoan, bearrean, eta horregatik eitxen dut berba holan . Eta esan neutzen, argi eta garbi, eh? Ez noa bizkaitarrarena eitera!! Eta ez dot eingo, ez horixe. Ez naz zuen jokoan eroriko. Beraz agur. Sentitzen dot, laztanak, baie ez dautsuet nire monologoa egingo. Beste baten izango da. Agur. (Musikariei) Eta zuek, trikitrixa ipinten badozue, zapatak atera eta burura, zuzen, eh? Agur denoi!! Musuak!!

## JOXE RAMON SOROIZ, PINPIX



*Pinpix sartzen da, Pinpixez jantzita. Publikoaren aurrean geratzen da, ixilik, clownen moduan. Zirkinik egin gabe. Gero zerbait egin dezake, Pinpix pailazoaren abotserekin... Ikusteko...*

Ze? Asmatu duzue nor naizen? Ez? (Arropa eta makillajea kentzen hasten da) Pinpix. Beno, ez naiz Pinpix, Pinpix pertsonaje hau da, pailazo hau. Ni... (Ia garbituta dagoenean) Orain bai, ezta? (Publikoko norbaitek esanda) Hori da, Jose Lontxo (Errektifikatuz) Ze Jose Lontxo!! Ez naiz Jose Lontxo, kontxo, Jose Lontxo beste pertsonaia da. Ni naiz... Koño, orain ez naiz ba nire izenaz gogoratzen...Egon pixka batean, hemendik apuntatuta daramat... (Kartera atera eta karnet bat zabaltzen du) Ajá... Ba ez pentsa...

Behin gauza bera gertatu zitzaidan kontrol batean. Eta orduan ez neraman kartera aldean. Maderoak DNI-ren numeroa eskatu zidan. Eta nik “Ez naiz gogoratzen”. Geroago, humore gero eta petralagoarekin, “beno, eman izena eta helbidea”, ordenadorean kontsultatzeko. Eta nik “Helbidea emango dizut, bai, XXXX kalea 13, bigarren ezkerra, 12008 Donostia” Izan ere nik nire helbidea oso ondo baitakit. Beno, Donostiara iritsi nintzenean ez. Ni Legorretakoa naiz... Ba donostiara iritsi nintzenean, teatroa ikastera, pisu bat hartu nuen errentan. Pisu ederra!! Berrogei mila pezta hilean, garai horietakoak, ez zen makala. Amak emandako dirua sobre batetik atera eta lehenengo hilekoa alde aurretik pagatu nion. Maleta ohe gainean ipini, eta kalera joan nintzen, Donostia ezagutzera. Jode... Zoratzen nihoan kaleetatik...La Concha, El Peine de los Vientos, Igeldo... Eta dendak... Dotoreak, aizue! Garai haietan eslogan bat zegoen “Donostiako Estiloa”. Eta badakizue, “Donde fueras haz lo que vieras”, eta denda batean sartu nintzen estiloa aldatzera. Arropa arraro samarra zen, baina ze

arraio... Goitik behera jantzi nintzen “Donostiako estilora”. Baina prezioa esan zidatenean, “Legorretako Estilora” itzultzea erabaki nuen. Kontua da egun santu osoa ibili nintzela Donostian gora eta behera, bazkaltzeko astirik ere hartu gabe. Gaua egin zenean, etxera itzultzea erabaki nuen. Eta orduan komeriak, aizue! Non arraio zegoen etxea? Helbidea apuntatu gabe neukan. Ez nuen gogoratzen ez kalearen izenik, ez numerorik, ez auzoa... jabearen izenik ere ez nuen gogoratzen... Beno, ba egun horretan ez nuen etxea topatu. Eta hurerengoan ere ez... eta hurrengoan ere ez. Hilabete osoa egon nintzen ditxosozko etxearen bila. La Perla diskotekaren teilatupean egiten nuen lo. Eta hilabete osoko alkilerra pagatuta neukan! Gaur egun, oraindik ere, Donostiatik paseatzen naizenean, beti ibiltzen naiz begira, ea ditxosozko etxea aurkitzen dudan. Arrastorik ez, aizue. Batzuetan pentsatzen dut dena espejismo bat izan zela... Desagertu zitzaizkidan berrogei mila pelak benetakoak ziren, dena den. Kontua da, lekzioa ondo ikasi nuela, eta ordutik buruz ikasten dut nire helbidea. Horregatik, maderoari oso ondo esan nion helbidea. Baina izenik ezin izan nion eman. Ez nuen gogoratzen. Izenekin dudan arazoa explikatzen saiatu nintzen, baina maderoa ez zegoen sikoterapietarako eta komisaldegira eramán ninduen.

*Karterako paperen artean miatuz.*

Zorionez, gaur kartera ekarri dut. Ea ba... (Irakurriz) Jose Ramón Soroiz... Joño, egia, Jose Ramon... Beno, ba, orain badakizue, Jose Ramon Soroiz naiz.

Baten batek burutik eginda nagoela pentsatuko du, baina azaltzen uzten badidazue, ulertuko duzue. Dena nire aitarekin hasi zen. Nire aita sasikoa zen, alegia, guraso ezezagunen semea, eta hospizio batean hazi zen. Balentin zuen izena. Legorretara etorri zen, eta bertan ezkondu. Papreak egin behar zituela eta, apaizak izena eskatu zion, eta nire aitak “Balentin”. Apaizak, ¿Balentín zer? Eta aitak... “Balentín ondo, zer ba?” Apaizak, jakina, abizenen berri eskatzen zion, baina aitak abizena zer zen ere oso ondo ez zekien.



Orduan apaiza hospiziora joan zen, eta liburuetan aurkitu zuen erdi zirriborraturik: Balentin Solaiz.

*Anek burua agertzen du. Soineko nabarmen estuegia darama erdi jantzirik.*

**Ane.**

Pinpix!

**Pinpix.**

Beraz, ni txikitan...

Ane.

Pinpix!!

**Pinpix.**

Pinpix? Nor da pinpix?

**Ane.**

Tentelduta zaude? Zu zara Pinpix.

**Pinpix.**

Ez, ni Jose Lontxo... ez Balentin... ez...

**Ane.**

Pinpix eta kitto, soso! Ala, igoidazu kremallera.

**Pinpix.**

Baina zergatik nik? Publikoarekin ari naiz. Gainera, ez al dago hortik erregidorea?

**Ane.**

Erregidorea aipatu ere ez, ez. Eh? ze bestela jata musturrekoka hasten naiz. Soinekoa estuegia dudala ez dit ba esan?

**Pinpix.**

Ba egia esan... Hara... Kremallera. (Eskuan kremallera zatia)

**Ane.**

Ala, oso ondo, Pinpix... Oso ondo. Banekien zurekin kontatu nezakeela. Lagunak ezbagina apropos egin duzula pentsatuko nuke. Ala, ekarri hori. Neuk egingo dut. Ala segi... (Badoa

marmarka) Soinekoa estuegia dudala! Zera jakingo du txatxu horrek. Menopausikoa!

*Badoa.*

### **Pinpix.**

Niri ere oso estua daukala iruditu zait, baina ea nor ausartzen da Aneri horrelakorik esatera. Zertan nebilen? Ah, bai... Txikitan Jose Ramon Solaiz nintzen. Beno, egia esan, herrian, Balentinen semea nintzen, eta batzutan “Balentin” soil soilik. “Balentintxo, joan zaitetz dendara eta ekarri letxuga bat, majo” esaten zidan hauzko andra gogaikarri batek... Edo, “Epa, Balentintxo, esaiozu amari sudurretako kandelak iziotzeko” eta holaxe... Baina nik gutxienez banekien nire izena Balentin Solaiz zela... Ez, barkatu, Jose Ramón Solaiz zela. Beno, jakin, ez, hobe esanda uste nuen, izan ere geroago enteratu ginen hori ez zela gure benetako izena.

Anaia Jose Lontxo izan zen hauzia garbitu zuena. Ezkontzera joan zenean, paperak egin behar zituela eta aitaren zorioneko erregistroa irakurri behar izan zuen. Eta apaizak “Solaiz” irakurri zuen tokian berak “Soroiz” ikusi zuen. Eta horrela ba, egun horretatik aurrera, Jose Ramon Solaiz izatetik Jose Ramon Soroiz izatera pasatu nintzen. Ez zen aldaketa handiegia, baina nire buruan halako klik bat somatu nuen. Orduan ez nekien gauza okerragora joango zenik.

Ze gero, esan dizuedan moduan, Donostiara etorri nintzen, eta teatroa egiten hasi. Pailazo konpainia bat egin genuen, “Pinpix Porrotx eta xxxxx” (¿?) Ni Pinpix nintzen. Hasieran ikusi duzuen pertsonaje hura egin nuen. Beno, hori bukatu zen... Beno, esan nahi dut, peluka eta jantzia bukatu zen, eta ekitaldiak... Baina izena ez. Nik ez dakit ze arraiogatik, lagunak “Pinpix” deitzen hasi zitzaizkidan. Hasieran problemaik, ez... Baina laster konturatu nintzen nire izenaz, nire benetako izenaz... zera... (Karnetea begiratzen du) Jose Ramon Soroiz, nire izenaz ahazten ari nintzela. Gauza pasajeroa izango zelakoan, ez nion inportantzia larregirik eman.

Ofizioan jarraitu nuen, eta gauzak nahastenago. Telesaio batereko hartu ninduten, “Bi eta Bat”, eta bertan, pertsonaje bat egiten

nuen... Jose Lontxo. Egia esan, pertsonaje horrek ba zeukan nirekin zenbait paralelismo... Baina ni ez naiz Jose Lontxo, ze arraio. Jose Lontxo pertsonaje hura zen. Beno, egia esan, Jose Lontxo nire anaiaren izena da, izan ere... Baina hori beste historio bat da.

Orduan areagotu zen nire nortasunaren bikoizketaren arazoa. Baina txarrena etortzekoa zen. Ze geroago “Jaun da Jabe” egin nuen, eta bertan sukaldari lehendakariarena egiten nuen. Sukaldariarena ondo eramaten nuen, azken finean, neure etxeko sukaldean aritzen nintzen, eta inor ez zen enteratzen. Baina lehendakariarena txartoago eramaten nuen. Paperean sartu nintzen erabat... Ardanzari pleito bat ezarri nion, lanpostua usurpatzeagatik, atera kontuak... Etxetik irteten nintzenean, trajea eta guzti, neskalogunak esaten zidan... “Baina nora zoaz, Pinpix”? Eta nik, “Ajuriaeneara, lanera!” Eta neskalogunak besotik heldu eta etxera zj sartzen ninduen bueltan. Txarrena hauteskunde garaiak ziren. Lur jota bukatzen nuen.

Gero ertzainaren papera egin nuen eta orduan eskizofrenia muturreraino iritsi zen. Ni kotxean nihoan, esatebaterako... Errepidean 80 kilometro ez gainditzeko seinalea. Beno, ba 85ra jartzen banintzen, zas!! Neure buruari multa! Edo sagardotegi batera banijoan, eta pixka bat txispatzen banintzen... ez pentsa neure buruari esaten niola, “Pinpix, etzakela gidatu” Ez, ez, zorro zorro, neure buruari kotxean sartzen uzten nion, eta gidatzen hasten nintzela, Zas, alkoholemia kontrola. Ni ez nintzen edozelako ertzaina ez, ni zipaio kabroia nintzen!

Kontua da, bolada batean lanari utzi diodala, ea sendatzen naizen. Etxea kartekez beterik daukat: “Ni Jose Ramón Soroiz naiz” toki guztietatik: sukaldean, egongelan, logelan, komunean... Gero eta hobe nabil. Beno... Gero eta hobe nihoan atzorarte.

Atzo, seguritate sozialeko paperak egiten nenbilela, orain arteko terapia guztia naibe gaztelu baten moduan jausi zitzaidan. Paperak betetzen hasi nintzen eta orduan irakurri nuen, goiko partean, argi eta garbi: Nacionalidad 724. Sexo 1. Estado civil, 1.

Ordutik hona oso nahastuta nago. Nor naiz ni? Pinpix, Balentín, Jose Ramón, Solaiz, Soroiz, Ibarretxe, 724a...?

Ze ordu da? Oh!! Barkatu, sikologoarekin orduan daukat. Agur, eta ondo izan.

PATXO TELLERIA

## ELENA IRURETA



*Elena korrika sartuko da, jarraitu baliote bezala.*

Ai ama, ai ama, ai ama!!

*Musikarien artean izkututzen da.*

Zuek segi... segi jotzen... Disimulazazue.

*Musikariak musika egiten hasten dira. Erregidorea sartzen da eskenatokian, begiratzen. Elenak kapela bat jantzi, gitarra bat hartu eta "kantatzen" hasten da, musika taldean integraturik.*

Erregidorea.

Elena... Elena Irureta, mesedez, eskenatokira. Elena Irureta!! (Kaskoetatik) Aizu, hemen ez dago. Bale, begiratuko dut. (Badoa marmarka) Sartu zaitetz erregidore, esaten dizute... Aktore famatuak ezagutuko dituzu esaten dizute... Jakin izan banu...

*Erregidorea desagertzen da. Elenak kantatzeari utziko dio. Seguru dagoela konprobatu eta gero...*

Joan egin da, ezta? Beno... Berrito agertzen bada, abisatuidazue, mesedez. (...) Hau da gurutzea, hau! Hiru aste darama nire atzetik andre hura. Hiru aste. Eskinazoa emana niola pentsatu nuen, baina keba... Orain, teatorra nentorrela, berriz ikusi dut. Holandako kamioi bat gidatzen zihoan... Ilegorria zen, kizkurra eta bizarrarekin, baina ni ez nau engainatzen. Hura eta erregidorea emakume berbera dira, aspaldi honetan nire atzetik datorkidana. Teatroaren ondoan ere kusi dut, lehen, kastainak saltzen. Ez dakizue ze urduri jarri naizen. Sustoarekin semaforo bat aurretik eraman dut eta...

*Pinpix sartzen da, Ertzainaz jantzita.*

**Pinpix.**

Barkatu. Ford Escort bat matrikula SS 4657 M zurea da?

**Elena.**

Bai..., eta?

**Pinpix.**

(Libretatxo batean apuntatuz) Farola bat apurtzeatik 25 mila pela. Kotxea txarto aparkatuta uzteagatik 10 mila, gei hamabost gruarenak guztira berrogeitamar. (Papera ematen dio) Dirutan pagatzen baduzu ehuneko hamarreko deskontua.

**Elena.**

Kaso en Soria... Baina zer diozu, Pinpix?

**Pinpix.**

Zer? Pinpix?

**Elena.**

(Xafladak ematen) Esnatu, txotxolo!! Jose Ramón zara.

**Pinpix.**

Jose Ramón.

**Elena.**

Bai, Soroiz... Jose Lontxo. Lehendakaria. Legorretakoa zara. Berrogei urte dauzkazu eta burutik eginda zaude.

**Pinpix.**

Jose Ramón esan duzu?

**Elena.**

Bai, eta orain ospa hemendik, nire txanda da eta.

**Pinpix.**

(Sonanbulo bezala, desagertu arte) Pinpix naiz... Jose Ramon... Jose Lontxo... Lehendakaria naiz. Nacionalidad 724. Sexo 1. Estado civil, 1.

## Elena.

Zeharo jota dago gaixoa. Zertan ari nintzen? Ah, ba hori... tipa bat segika dudala. (...) Ziur ez dabilela hortik, ezta? Badakizue zergatik dabilen nire atzetik? Ez duzue sinistuko. Aktore onegia naizelako. Hori da. Nire pertsonaiak hain sinisgarriak egiten ditut ze jendeak benetan ari naizela pentsatzen du. Orain Madrilen nago telesail bat egiten, ezta? Eta kapitulo batean zera esaten zuen nire pertsonaiak: Nire pertsonaia nahiko... nola esan, nahiko "sueltoa" da, ezta ba esaten nion lagun bati...

(Emakume fatalarena egiten) "Ayer me acosté con Jose López. Después del primero exclamó: "Tú sí que sabes, no como la torda de mi mujer". Reímos, echamos un pitillo y volvimos a follar."

Arazoa zera da. Badakizue zenbat Jose Perez daude munduan? Bakarrik Madrilen, listinean begiratu nuen, mila baino gehiago. Horietatik zenbat egonmgo dira ezkondata? Eman dezagun 500. Bostehun horietatik zenbat ikusi zuten kapitulo hura? Audientzia koefizienteen arabera, ehun eta berrogei.

Konturatzen zarete? Ehun eta berrogei emakumek entzun zuten beren senarrarekin txortan egiten nuela. Badakit zer pentsatzen ari zareten, jendeak badakiela fikzioa eta errealtatea bereizten. Baina ez ba, ez horixe! Munduan txoro asko dabil. Zeharo burutik jota. Jota Erre gogoan duzue? Dallaseko gaiztoa? Ba aktoreak ehundaka mehatxu jasotzen zituen telefonoz. Jendea burutik eginda dago. Ederra egin zidan gionista horrek. Ze Jose Perez erabili beharrean, esatebaterako Torcuato Mediavilla erabili izan balu, orain ez nintzateke hola ibiliko.

Sinistuidazue, hau ez da bizitza. Jakin izan banu, en nintzen aktore sartuko ezta burutik eginda ere! Telebista madarikatuarekin hasi ziren arazo guztiak.

Hasieran ez nion inportantzia handiegirik eman. Eramangarria zen. Igual herriko dendara nihoan konpresa kaxa bat eroatera eta dendariak "Jesus, neska, ze seria zauden Telebistan askoz graziososagoa ematen duzu!" eta holakoak, baina tira... Ezer

graberik ez. Lehenengo istilu larria Jaun da Jabe egiten ari nintzela gertatu zen. Nik kapitulo batean adarrak ipintzen nizkion Ibarretxeri... Oh! Barkatu, zera esan nahi nuen, lehendakariari, hau da, Jose Lontxori, Pinpax... Beno, ba asteburuan Zumaiara noa, lasai lasai, etxean sartu eta tinbrea. Auzoko Maria Luisa zen. “Ez dizu ez, lotsarik emango, freska, más que freska. Besterik ere behar genuen herri latz honetan.” Eta eskoba aidean astintzen hasi zenean atea itxi nuen. Eskoba atearen kontra nola apurtzen zen entzeun nuen. Kostatu zitzaidan ulertzea: lehendakariari adarrak ipintzeagatik jarri zitzaidan horrela!! Maria Luisa PNVkoa da peto petoa.

Orduan konturatu nintzen nire interpretazioek zuten indarrarekin. Badaezpada, kontuz ibiltzea erabaki nuen. Aurrerantzean kontuz aukeratuko nituzke paperak. Horregatik monjarena egitea proposatu zidatenean, primeran iruditu zitzaidan. Zumaian monjekin txoratzen dira eta. Beraz, kontratua sinatu nuen. Eta geroago jakin nuen monja lesbianarena egin behar nuela. Atera kontuak... Herriko apaizak “exkomunioa” eskatu zuen karrasika. Konbentuko monjak prozesio bat egin zuten nire arimagatik erregutzen... Baina hori ez zen txarrena izan. Ire pertsonaia, nola esan? Marimatxo xamarra zen... Horrelako zerbait.

*Dukados pekete bat atera eta “Pecata Minuta” ko zatitxo bat egingo du.*

Idea bat egin duzue, ezta? Beno, garai hartan nobio bat neukan... txarto dago nik esatea, baina ogian bustitzeko moduan zegoen... Eta gainera nigatik txoratuta... Behin etxera heldu eta bere nota bat ikusi nuen sukaldean. “Pekata Minuta” ikusi dut. Horretarako nahiago dut Loiola del palaziorekin irtetea. Agur betirako.”

*Une batez bere Nobio ohia gogoratzen geratzen da, emozionaturik.*

Ofizioa uztea ere pentsatu nuen, baina gero... ze arraio... Bokazioa bokazioa da.

*Albora begiratu.*

Ai ama, hor dago emakume hori berriro! Beno, banoa...

*Korrika irteten da. Erregidorea sartzen da.*



Erregidorea.

Eh... Nora zoaz? (Interfonotik) Joan egin da. (...) Bukatu gabe joan da. (...) Eta nik ze arraio dakit? (...) Irureta... Elena Irureta, mesedez. Jode... Sar zaitetz erregidore esten dizute... Aktore famatuak ezagutuko dituzu esaten dizute...

PATXO TELLERIA

## ANE GABARAIN



*Ane sartzen da, eskilarak badaude, eskilaretatik, musika sentsual bat fondoan, "vampiresa" baten moduan, Gildarenak bezalako eskunarruak eranzten edo, eta ingelesez kantatzen. Irudi barregarria emango du, takoi luzeekin estrapozu eginez edo antzeko zerbait. Bukatzen duenean, txaloen ostean... takoidun zapatak kentzen ditu.*

A ze miña, la letxe que le han dao!! (Zapatak eskuan harturik, jenio petralez) Ea, ba, non dago erregidorea? (Baten batek burua aterako du. Anek zapatak erakutsiz) Hau zer arraio da? Mendekua? Berrogeia kaltzatzen dudala esan nizun, ba. Ea... ekarri nire zapatak, oinak lehertu beharrean ditut eta. (Erregidoreak bere zapatak sartzen ditu) Eta soinekoa? Ez al nizekizuen neurriak esan? 60 90 60!! Kenduidazu segituan, lehertu beharrean nago ta. (...) Zatoz ba, txotxolo!!

*Erregidoreak trajea kentzen dio. Azpian kaleko jantziak agertzen da.*

Anorexikoentzat egiten dituzue jantziak. Zorionez, gauzak aldatzen ari dira... Berriz ere kurbak istimatzen hasi dira... Hor daude Leticia Casta, Shalma Haiek edo ni neu, urrutira joan gabe. (Erregidoreari) Ala, ondo da... Eta? Zer egiten duzu hor? Ala, segi, ospa!!

Epa... Ane naiz... Ane Gabarain... Beno, agian ez nauzue ezagutu ni telebistan itxusi agertzen naizelako beti. Beno, ba tatxan!! Neu naiz hori, sorpresa, ezta? Eta galdetuko duzue, zer egiten du zu

bezalako neska katxarro batek, neskame potoloarena, edo monja ñañoarena , edo ikasle zatarrarena egiten?

Ba aktore bezela, desafio bat zen niretzat. Aktoreok askotan egiten ditugu, gure benetako nortasunetik urrun dauden pertsonaiak. Hor dago Tom Hanks, bera den listoarekin, Forrest Gum egin zuenean... Gerard Depardieu, esatebaterako, sudur motza da, eta Cirano De Bergerac egin zuen. Edo Ronald Reagan, bera den tontoarekin, Estatu Batuetako presidentearen egin zuenean...

Ba niri gauza bera... Gainera, nik beti esaten dudana: ez dut nahi nire fisikoagatik bakarrik kontuan har nazaten. Betidanik gorroto izan diot neska florero izateari. Piropoak ere, gorroto ditut. Ez ditut aguantatzen. Beno, hala uste dut, ze Euskadin, jendea oso edukatua da, eta sekulan ez dit inork piroporik esan. Harrigarria, ezta? Jendea Euskadin oso edukatua da. Beno... egia esan, Euskadin ere beste neska askori gauzak esaten dizkiete kaletik... Niri sekula... Begietan antzematen didate ez dudala batere gustoko. Beno... ez, egia esan, desiatzen nago... xaplasteko bat emateko gogoagatik. Desiatzen nago baten batek esatea “Tia buena” eta jata sudurrean. “Matxista de mierda!” Edo “Maziza!” Eta jata ankatartean. “Grosero!” Uhau!! A ze gozada. Baina, inork ez dit ezer esaten. Jendea oso edukatua omen da.

*Halako batean, Elena sartzen da, Holliwoodeko estarleteen gisa, betaurreko beltzak eta abrigu luze bat, lepokoa goraturik. Inor segika balu bezela dabil.*

**Elena.**

Tssstttt!

**Ane.**

Baina ze egiten duzu...

**Elena.**

Segika daukat emakume bat. (Albo batera seinalatuz) Hara Hor dago, ikusten?

**Ane.**

Emakumea? Hori gizona da. Erregidore txatxua!

**Elena.**

Bai zera! Ez al duzu ikusten disfrazatuta dagoela?

**Ane.**

Elena... Entzuidazu ondo: Inor ez dabil zure atzetik. Zure buru beroaren imajinazioa besterik ez da.

**Elena.**

Ane, potxola, utzidazu izkututzen, mesedez! Zuk ez duzu ulertzen baina nire bizitza arriskuan dago. Zu segi lasai... Disimulatu. Ni ez banengo bezala.

**Ane.**

Beno... Ba... Aktore izateko bokazioa txiki txikitatik daukat. Amonarekin Ana Belenen pelikulak ikusten nituen... Eta esaten zidan... “Ai, Ane, zu zaren guaparekin, hori baino famatuagoa egingo zara.” Nire amona itsua zen, baina kriston intuizioa zeukan. Eta kasu egitea erabaki nuen. Euskadiko Ana Belen izango nintzen, Ane Belen!

*Elena izkutalekutik irteten da.*

**Elena.**

Tsssttt! Banoa. Nitaz galdetzen badizu, esaiozu ez naizela etorri. Bai? Nigatik egingo duzu? Eskerrik asko, potxola. (Barrez) Ane Belén!

*Badoa, barrez.*

**Ane.**

Hasierak oso gogorrak izan ziren. Miss Gipuzkoako txapelketara aurkeztu nintzen. Beno... aurkeztu nahi nuen... Ez ninduten onartu... Oraindik gogoan dut antolatzailearen galdera “Zer arraio pintatzen duzu zuk hemen?” Hasieran txarto ulertu nion. Baina gero konturatu nintzen bere mezuaz. Arrazoi zuen, nik ez nuen konkurtsu txapel horien beharrik. Eta modelo sartu nintzen. Oraindik gogoan dut nire lehen pasea... Beno, lehena eta azkena. Ez dut sekula ahaztuko. Kamerinoetan geundela, modistoa hurbildu zitzaidan... eta nazka aurpegia ipiniz galdetu zuen... “Zer

egiten du foka honek hemen?” Nik homosexualen kontra ez daukat ezer, baina bistan zegoen tipo horri emakume katxarro bat eta pertxero bat berdin berdin ziola. Kontua da, laguntzaileak talla bereziak eramateko kontratatu nindutela esan ziola. Talla bereziak ni? Nere arropen so egin nien: Pavarottirentzat eginak ziruditen. Baina ze uste zuten horiek? Ikasiko zuten ba nor nintzen. Eta alboko neska konunera zihoala aprobetxatuz, kanbiazoa eman nion. Alboko modeloa, estilo Don Kijote zen, anak zikoina batenak, aurpegi makal makala... Yogurt desnatatuaz bizi diren horietakoa... Goseak amorratzen. Filete bat botatzen duzu aidera eta zdsazz! Hamar modelo aginka aidean, txakurrak lez. Tristeia neska!! Ba abere arropak jantzi nituen. Gona estua zen, narru beltzekoa, hemendik honainoko raja batekin... Goian korpiño transparente bat... Ispiluari begiratu nion... Hipoa kentzeko moduan nengoen. Estu xamar arropa, baina monísima. Bitartean nire alboko modeloa, bere arropen barruan galdurik zegoen... “Atera nazazue hemendik!!” Hala, espabilatu zaitez, anorexika

Pasarelan agertu nintzenean... Hura konmozioa! Karrasiak, txistuak... Neure atean esan nuen, ondo Ane, poltsikoan sartu dituzu agertze hutsarekin. Aurrera egin nuen. Bigarren pausoarekin gonak raaaj egin zuen... Laugarrenean korpinoak eztanda egin zuen. Modistoaren amarekin gogoratu nintzen. Ze materiale kakarekin eginda zeuden arropa horiek ba? Segitzea erabaki nuen harik eta guarda juradoek eraman ninduten. Esperientzia txarragorik!! Neure buruari esan nion, ez noa berriro. Modeloen mundua hain da kutrea. Eta gainera, emakumea objeto lez tratatzen da. Inoiz berriro ez.

Orduan aktore sartzea erabaki nuen. Kostatu zitzaidan lan hartzea. Neska katxarroentzako lan gutxi dago Euskadin. Egun batean kasting bat egin zuten telebista baterako: “Hogei-hogei urte bitarteko neska aktorea behar dugu, txikia, potoloa.” Eta nire errepresentanteak esan zidan, “Presenta zaitez, Ane” Ni harrituta... Horretarako’ Zertarako, ez dut perfila ematen! Eta besteak, “Tira, ez duzu ezer galtzen”. Total, presentatu nintzen, eta dirudienez ez zegoen Euskalerrri osoan neska aktore txiki eta potolorik, kontua da ni hartu nindutela.

Ez dakizue nola kostatu zitzaidan paperean sartzea... Aizue, eta makilladorea... La bonba!! Pantailan nire burua ikusi nuenean ezin nuen sinistu. Frankestenin ematen nuen. Itxusia!! Eta potoloa!! Eta txikia!! Ezin sinistekoa! Lore sorta bat bidali nion makilladoreari, ondo merezitakoa zuen, egindako metamorfosiagatik.

Gainera, bentaja bat neukan. Jendeak ez ninduen kaletik ezagutuko, bestela a ze koñazoa kalean mundu guztia “Aizu, zu telebistan agertzen zara, ezta?” Ez dut agoantatzen txapa hori. Horregatik, seriea emititzen hasi zenean lasai asko irten nintzen kalera, nire anonimatoaren babesean, eta zein izan zen nire sorpresa merkatuan sartu eta aandra bat “Juhu!! Zu telebistakoa zara!” Beste batekin nahastu ninduela pentsatu nuen, harik eta arraindegian peskaterak begi keinua egin eta “Atzo ikusi zintudan ETBn, oso ondo, neska!” Nola zen posible? Gero konturatu nintzen: begirada. Berdin da zenbat makilatzen zaren, zure begirada beti zure begirada izango da.

Beno, kontua da urteak daramatzadala neska txiki potolo itxusiarena egiten... Bentaja bat dauka, ze ni bezelako aktore katxarroak, hola daude, baina batek ere ez dauka itxura aldatzeko nik didan abilitadea. Eta horrela lan mordoa egiten dut. Baina zer nahi duzue, batzutan frustratuta sentitzen naiz. Nik Ana Belenengatik sartu nintzela aktore. Txikitan txoratzen nintzen bere pelikulak ikusten. (Ana Belenen pelikularen baten kanta baten zatia kantatzen du) Euskadiko Ana Belen izan nahi nuen, Ane Belén.

Paper asko egin ditut nire bizitzan: Monjitarena, tontita barregarriarena, neskame inozoarena... Pertsonaje xelebreak sex sinbol batentzako, ez duzue uste? Baina ez dut esperantza galdu. Sex Sinbol gutxi daude munduan, eta azkenean agertu egiten dira. Egunen batean norbait, nonbait, nirekin erreparatuko dut, ez daukat prisarik... Berrogei urte ditut jada, Berrogei ta hamar urtetaraino forman aguanta dezaket... Historiara pasako gara Cher, Jane Fonda, XXXX eta laurok.

Nire benetako ametsa badakizue zein den? Txanpu baten anuntzioa egitea, dutxan, ur tantak nire ilaia sedosotik irristatzen, nire gorputza kristalezko manpara lurrunduaren atzean insinuatzen...

*Hitz egin ahala, eta musika sentsual baten fondoarekin, jertsea kendu eta soineko luze elegante bat deskubritzen hasten da. Velcroz jositako prakak kolpe batean kentzen ditu, ilearen orkillak askatu eta ilaia solte uzten du. Kantatzen hasten da (Anek aukera dezala musika eta letra ipikjniko diogu). Besoetan "Gilda"-ren moduko eskunarru luzeak ditu, musikaren erritmuarekin kentzen dituen.*

PATXO TELLERIA

## AIZPEA GOENAGA



*Aizpea eskenatokian sartzen da. Maletatxo batean idazmakina ateratzen du. Ahopeka hitz egiten du.*

Tsstttt! Ez egin zaratarik, mesedez. (Tripa seinalatuz) Orain lo dago. Tssttt! Laugarren hilabetea nago. Oraindik ez dakit nolakoa den, altua, bajua, errubioa, beltzarana... baina gauza bat ia ziurra da: aktorea izateko papeleta guztiak dauzka. Gure familiaren patua da. Birraitona plazagizona izan zen. Aitona ere bertsolaria. Ama aktorea... Nire iloba ere aktorea... Horregatik izenei buruz pentsatzen hasten garenean, lagunek txantxetan esaten didate: “Mutila bada, Sespil eta neska bada Nuriaesper” Ba niri ez dit batere graziarik egiten ze nik... nik ez dut nahi aktore izaterik. Ez dut nahi eta ez dut nahi!

Beno, ea ondo ulertzen didazuen. Berak nahi duena izango da, besterik ere behar genuen, baina nik eskaintza zabala eskeini nahi diot. Ez zait gustatzen dena alde aurretik erabakita egotea. Gainera umeari etorkizun segurua opa diot, eta ofizio hau edozer izango da, baina segurua...

Nik funtzionario izatea nahi dut. Diputazio edo udaletxeko bulego batean. Hummmm, a ze ilusioa egingo lidake!! Baina jai daukat. Gauzak oker hasi dira, bai horixe. Oraindik ez da jaio eta teatrozale amorratua da, potxolotxo hau.

Benetan ari naiz, eh? Teatro baten aurretik pasatzen garenean, ostikotxuak ematen ditu, pozaren pozez. Eta kale animazioak txoratu egiten du. Tanborrada egunean, ostikotxoak erritmoarekin ematen zituen: (Tanborradaren erritmura) “Tuturrun tu tutu tu turru turrun” Inhautei egunean, ekografia tokatu zitazidan. Miren,



ginekologoa, urduri ikusi nuen: “Arazotxo bat dago, Aizpea, zilborestea korapilatu zaio.” Ekografia erakutsi zidan, eta egia zen, zilborestea buruan bueltak emanda ikusten zitzaion. Eta esan nion. “Lasai, Miren, Mozorrotuta dago, Moro Mustafa-z disfrazatu da” Mirenek burutik nagoela pentsatu zuen, baina arrazoi nuen, hausterre egunerako zilborestea bere tokian zegoen berriz ere.

Beste behin, Bulebarrean, estatuarena egiten ari zen aktore bat ikusten egon ginen. Hor zegoen, zirkinik egin gabe, eta norbaitek platertxoan txanpon bat uzten zuenean, mutilak txin txin hotsarekin halako erreberentzia bat egiten zuen, berriro lehengo posiziora bueltatzeko. Beno, ba etxera joan nintzen eta arraro sentitu nintzen. Senarrak, “Zer duzu, Aizpea?” Eta nik, “Ezer ez” baina kezkatu nengoen: bi ordu ziren umea mugitzen sentitzen ez nuela. Orduan burura etorri zitzaidan: Txanpon bat hartu, bandejatxo baten kontra “Txin txin” egin eta zas! Umea dantzan!!

Kontu handiz ibili beharra daukat teatroarekin, ze neure kutuntxo hau denetaz enteratzen da, eta ez diot zaletasuna areagotu nahi. Horregatik, gala honetan parte hartzea eskatu zidatenean esan nien ezin nuela, ze neure buruari agindu diot haurdunaldi osoan ez dudala teatrorik egingo. Ez egin eta ez ikusi. Baina ilusioa egiten zidan eta eszepzio bat egitea erabaki dut. Ez al naiz damutuko!

Gezurra esan diot txikitxuari, gezur piadosoa. Etxetik irtetea, abrigua jantzi eta... (Triparuntz) “Beno, banoa futbola ikustera!” Futbola ez zaio batere gustatzen. Niri ere ez, baina nireak aitzakia dauka, ze aktorea naiz, baina funtzionario bat... Non ikusi da funtzionario bat futbola gustatzen ez zaiona? Zertaz hitz egingo du astelehenean bulegoko kideekin? Begira...

*Arropen artetik “Marca” bat ateratzen du.*

Egunero erosten diot. Ez al dute esaten dena pegatzen dela? Ba ea egia den. (Portada irakurriz, entusiasmo handiz) Aiba, etzazu galdu hau, maitia: “El Madrid deja k.o. al Panatinaikos!!” (“Marca”-ko egun horretako titularra) Ez al da harrigarria? (Eskua tripan jarritz) Keba, no cuela. Seguro nabaritzen duela niri ez zaidala piperrik gustatzen, ze listoa den!!

*“Marca” berriro kokatzen du.*

Tssttt! Itxoin... (Tripa ukitzen du) Kaka zaharra!! Esnatu egin da. Ai ama, teatroan nagoela enteratzen bada, ejenplu polita!! Joan egin behar dut. (Irtetera doa, baina buelta ematen du) Egon, beste gauza bat okurritzen zait. Baina zuen laguntza behar dut. Hara, egidazue mesede bat, egin zarata asko, Anoetan (edo Sadarren edo tokatzen duena) egongo bagina bezala, badakizue, gradetako ohizko zarata. Hori da, zuek badakizue.

*Poltsikotik karraka bat ateratzen du (edo turuta horietako bat, Spary baten modukoak, kriston zarata egiten dutena). Aizpea ohiuka hasten da, forofa bat balitz bezala, tripari zuzendurik:*

*“Pasa baloia, soso, itsua zaude, ala!! Baina ez duzu ikusten markatik libre dagoela? Zer egin nahi duzu baloiarekin, jan behar duzu?, Chupón, más que chupón... Ala, ze pase kaskarra!!! Nik anka bakarrarekin hobe egiten dakit! Eta bestea... Egin zazu korrika, gizona, horretarako pagatzen dizute! Hori da... Segi, segi...!! Baina ze... Jokoz kanpo?? Arbitro, mamón! Baina ez al duzu ikusi defentsa hori? Baina zuri ze tonbolan eman dizute karneta? No me toques el pito que me irrita!! A ze muturra!!! (...) Zoaz etxera, kapullo!! Erosita zaude, erosi...” Tssttt!! (Publikoari) Ixildu, mesedez...*

*Tripa tentatzen du.*

Lokartu da berriz. Milesker benetan zuen laguntzagatik. Oso enrollatuak zarete. Milesker. Zertan ari nintzen? Ah, ez dudala umea aktore izateko kondizionatu nahi. Nik libertatea eman nahi diot, eta berak aukeratu dezala.

Lantzean behin Boletín Oficial del País Vasco irakurtzen diot. “Ala, ze aspergarria” pentsatuko du baten batek, baina bai zera!! Boletín Ofiziala oso interesgarria da. Kontua zera da, ondo saldu behar dela, gauza guztietan bezala. Entzun, mesedez.. (Musikoei) Mesedez, jo zazue zerbait goxoa:

*Boletín Oficial bat ateratzen du eta oso abots eztiarekin, ipuin liluragarri baten moduan irakurtzen du:*

*“Behin batean, 2001eko otsailaren leian, Alkatearen dekretuz, 2000ko 4 hiruilabeteko Zabor, Estolderia eta Uraren tasen erroldak onartu ziren eta Udal horretako Kontuhartzaitetzan erakutsi ziren 15 egunetako epean. Epe horretan, errolda horien aurka errekurtsioak eta alegazioak tartekarri ahal izango ziren. Halaber, une berean, borondatezko ordainketa aldia hasi zen eta 2001eko apirilaren 2an bukatu zen. Aurreko epea amaitzean, ordainketa ejekutiboari ekingo zitzaion, gainkarguarekin. Eta hala egiaztaturik geratu zen Bergaran, 2001.eko otsailaren 2-a. Alkatea.”* Eta hau hola ez bazan, sar nazatela kalabazan.

Eh? Txundigarriaa, ez da hala? Zer dauka Txanogorritxuk edo Hiru Txerritxoak honek ez daukana? Ezer ere ez. Planteamiento nudo eta desenlazea dauka. Eta intriga. Eta mezua. Eta gainera errealitatearekin lotuago dago. Askoz interesgarriagoa, eta pedagogikoa, dudarik gabe. Ba aizue, “jaunari” ez zaio gustatzen. Jaunak “artista” izan nahi du. Pues vas dao...

*Idazteko makina erakutsiz.*

Sonajero berria erosi diot. Ea gustatzen zaion. (Idazmakina banketan apoiatzen du, eta teklak jotzen hasten da) Soinu ederra, eh? Mekanografia oso inportantea da bizitzan. Eta oso konpletoa. Kirol bat da. Duela gutxi mekanografoen txapelketa baten berri entzun nuen. Irabazleak minutuko 356 pulsazio zituen. Neure umeak gehiago izango ditu. Rekorman mundiala. Por éstas! Mekanografia gauza handia da. Eta artistikoa gainera. Azken finean, ze diferentzia dago pianotik idazmakinara? (Hatzamarrak mugituz) Funtsean berdin berdinak dira. Hamar hatzamar, tekla mordoa, eta partitura bat. Beno, bai, diferentzia bat dago: idazmakinarekin bizimodua aurrera ateratzen duzu, eta pianoarekin...

*Idazmakina piano edo perkusio instrumento bat balitz bezala erabiltzen du, sehaska kantan laguntzeko. Kanta Aizpeak erabaki dezala bere gustokoa. Tarte zabalak uzten ditu esaldiz esaldi, Mekanografia “soloak” egiteko. Bukatzean eskuak tripan ipintzen ditu.*

Ez zaio gustatu. A ze espeziala zaren, jesus, maitia!! Eta ez da berriz lokartuko, ziur. Oraingoan bai, oraingoan alde egin beharra daukat. Beno, agur, eh? Gusto handia izan da.

*Badoa. Jendea txaloka hasten da. Aizpeak buelta eman eta ixiltzeko eskatzen die.*

Mesedez, ez egin txalorik!! Mesedez!!! Ez du jakin behar teatroan gaudela. Ez egin txalorik... (Ixiltzen dira) Hori da. Baina bestaldetik, aizue, txaloak hain politak dira... Badakit, zuek egin txalo, eta nik disimulatu egingo dut.


*Aizpeak konbidaturik, jendea txalo egiten hasten da berriz ere. Aizpeak, bitartean, triparuntz hitz egiten, bera ere txaloka.*

**Gol!!! Gol!!! Bakalao bakalao bakalao bakalaoooooooooo!**

*Badoa.*

PATXO TELLERIA

## IÑAKI BERAETXE



*Beraetxe eskenatokian sartzen da, traje apain batez eta ile motza duela. Bizarra ondo eginda eta bibotea arreglatua.*

Epa, Iñaki Beraetxe naiz. Zera... Neure buruari buruz hitz egiteko eskatu didate, baina txorrada bat iruditzen zait. Txismorroak kontatu nahi dituen doala “Diez Minutos” edo “Lo que faltaba”-ra... Dignidade apur bat, koño... aktoreak garela eta ez bufoiak... Zuen baimenarekin, monologo bat kaskatuko naiz. Millerren “Muerte de un Viajante”-ren zati bat. Ea gustatzen zaizuen.

*“Muerte de un viajante”-ren zati bat interpretatzen hasten da.*

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX...

**Off.**

Iñaki... Iñaki...! Ze arraio egiten ari zara?

**Beraetxe.**

Ni aktorea nauk. Kotilleoa nahi baduzue, deituiozue Tamarari.

**Off.**

Nigatik egin nahi duzuna, baina kendu zazu peluka hori, mesedez. Horrela ez zaitu inork ezagutzen.

**Beraetxe.**

Ze peluka?

**Off.**

Etzazu despistatuarena egin.

**Beraetxe.**

Ilea moztu diat. Atzo bertan moztu nian. Pelukeria baten ondotik pasa, eta bitan pentsatu gabe, sartu eta raaa!!!

**Off.**

Ez duzu horretarako potrorik euki.

**Beraetxe.**

Aiba dios... Hik... hik ez nauk ondo ezagutzen, motel. Hik... hik ez dakik Beraetxe nor den. Beraetxek ilea moztu nahi badu, ilea mozten dik, eta ez zegok munduan amaren semerik, aitu ondo esango diadana, ez zegok munduan amaren...

**Off.**

Kendu peluka...

**Beraetxe.**

Baina ez al diat esan ba moztu...

*Isilune bat. Azkenean, peluka kentzen du, eta bere melena agerian geratzen da. Peluka lurrera botatzen du amorru bizian.*

Bale, ez diat moztu. Oraindik. Baina egon hadi lasai, hi, gutxien espero duanean, zasss!!! Egon hadi lasai...!

*Halako batean, bere ileari begira geratzen da. Gero, kezkatu...*

Mekagoenla...!

*Patrikatik esku-ispilu bat eta zepilloa ateratzen du.*

(Ileari) Barkatu, txurri... (Ilea zepillatzen du) Hara, barkatzeko esan dinat... Zer nahi dun, belaunikatzea? Eszenitarik ez, mesedez, jendearen aurrean ez. (...) Ez dun berriro gertatuko!... Eta gainera, ez dun hainbesterako. Histerika hutsa haiz, histerika hutsa.

(Publikoari, ilea orrazten jarraitzen duen bitartean) Parte batean arrazoi du. Bihar Goenkaleko grabazioa daukagu eta... (Spray bat atera eta ilean botatzen du.)

Laster zilarrezko ezteiak beteko ditugu. Zelan pasatzen den denbora! Hamalau urterekin hasi ginen. Hasierak ez ziren xamurrak izan. Aitak esan zidan: *“Iñaki: edo melena mozten duk, edo potroak mozten dizkiat”*. Etxetik joan nintzen.

Etxerik gabe, lanik gabe nengoen... Baina pozik, nire melenarekin. (Xamur, oroiminez) Kaletik nihoanean mundu guztia geratzen zen nirekin. Flekilloak begiak estaltzen zizkidan. Ez nuen pitorik ikusten, baina esaten nuena: *“Mundu zerri honetan ikusi behar denerako...”*

Melenagatik futbolari utzi nion. Atezaina nintzen, baina melenarekin (ilea begien aurrean ipiniz) imajina zazue... koladero bat. Jarraitzaileak sutan zeuden *“Hoa pikutara, Rocio Jurado!!”*. Kasu egin nien, pikutara joan nintzen.

Gero soldaduska egiteko ordua iritsi zitzaidanean insumiso egin nintzen. Bai, antimilitarismoa ondo dago eta bla bla bla... Baina nik ilea ez moztearren egin nuen.

Bizimodua aurrera ateratzeko heavy talde batean sartu nintzen. Nik musikaz puta idearik ez, baina gitarra desentxufatu bat ematen zidaten, eskenatokiaren aurrean ipini eta...

*Musikoek "heavy" moduko bat jotzen dute eta Iñakik burua astintzen du gora eta behera, gitarra jotzeko imintzioak eginez.*

...bi ordu segidan, zerebroa kaskezurraren barruan saltoka. Ez dizuet komendatzen. Casius Clai baino sonatuago bukatu nuen.

Beno... Kontua da orduan pobreak ginela, baina zoriontsuak. Badakizue esaten dena... "Contigo pan y cebollas". Beno, gure kasuan, "Pan, cebollas y champú".

Eta halako batean, nire bizitzak sekulako buelta eman zuen. Telebistako kulebroian melenudo bat behar omen zuten, hainbeste karrozen artean kolore pixka bat emateko edo. Aurkeztu eta hartu ninduten. Horrela hasi nintzen Goenkalen.

Garai onak izan ziren. Bizitzari eskatzen nion guztia nuen: lana eta melena. (Ilea hartu eta esaten dio) Garai onak izan ziren, ezta? (...) Zergatik begiratzen naun horrela? (...) Ah, ez naun inola begiratu, ez... Klaro, hi beti hain perfektoa, beti hain zure tokian... Neure onetik ateratzen naun. (...) Zer egin duan orain? Ezerez. Hik ez dun inoiz ezer egiten. Hori da hire problema, ez dunala ezer egiten. Hi beti txukun, jendea engainatzen: "*Oh, ze ile polita... Oh, ze diztira duen... Oh, ze xuabea den...*" (Publikoari) Ba jakin zazue, kaspau dauka!! (Ileari) Nola ezetz... Mesedez, ez hadi hipokrita izan... Antikaspau litroka gastatzen dinat... Ah, orain ez dun eszenitarik nahi, orain pakea nahi dun... Ba ez dinat gogorik... Kasposau!! Eta hemendik aurrera antikaspau gabe zigortua, a tomar por sacou!

(Publikoari) Ikusten, ezta zirkinik ere ez. (...) Normala. Badaki ez naizela ausartuko. Badaki bihar goizean txanpuarekin garbituko dudala, eta antikaspauarekin, eta puntak babesteko ukenduarekin, eta suabizantearekin... Badaki beste erremediorik ez dudala... Eta aprobetxatu egiten da. Bah!! Melenak guztiak berdinak dira!

Zertan nenbilen? Ah, bai... Zoriontsuak ginela orduan... Baina pixkanaka pixkanaka, gaztetako sua itzaltzen hasi zen... Gogoratzen naiz egun batean ohetik altzatu, ispilu aurrean ipini,

ilea bildu nuen horrela (Ilea biltzen du eskuarekin txorta bat eginez) eta pentsatu nuen: “Aiba dios... Ba ez nago batere txarto ile motzarekin..” Hori izan zen lehenengo infidelitatea. “De pensamiento” bakarrik, baina hori hasiera baino ez zen izan.

Handik gutxira teatro konpainia batek “Muerte de un viajante”n protagonista egitea proposatu zidan. “Muerte de un viajante”, nire faborittoa! Eta orain niri eskeintzen zidaten... zer eta Dustin Hofmanek eginiko paper berbera egitea! Zoratzen nengoen. “Arazo bat dago, ordea –esan zidaten-, zure melena hori moztu beharko duzu.”... “Arazorik ez,- esan nien.- Hori biharko egina dago”

Eta orduan nire inguruko guztiak hasi zitzaizkidan: “*Ezin duzu melena moztu. Goenkaletik botako zaituzte. Lanik gabe geratuko zara... Jokatu zazu zentzunez, Iñaki...*” Txarrena nire aita: “*Ilea mozten baduk, potroak moztuko dizkiat.*” Nola aldatzen diren gauzak, kamarada.

Nire melenarik gabe ez omen nintzen ezer. Mozten banuen, indar guztia galduko nuen. Euskadiko Sanson nintzen!!

Ez nuen moztu. Ulertu zazue, Goenkalekoa kriston txolloa da. Ondo pagatuta dago, eta ilean soldata aseguraturata daukazu. Udan oporrak eta urtean bitan paga extra. Seguridade horri uko egitea erokeria zen, eta melena eta biok elkarrekin jarraitzea erabaki genuen. Baina batere ilusiorik gabe. Konbenientzientzia hutsagatik. Harremana gero eta biziatsuagoa.

Oraindik jarraitzen dut Goenkalen. Lantzean behin papertxo bat lortzen dut, nire melenaren neurrira: Mosketeroarena... Merlin Magoarena... Azkena, Gaspar Errege Magoarena egin dut, kabalgatan, karameloak botatzen. Hay que joderse!

“Muerte de Un Viajante” nire bizitzako papera da. Askotan pentsatzen dut paper hori egiteko etorri nintzela mundu honetara. Buruz dakit textua... euskeraz, gasteleraz, ingelesez...

Egunen batean, kagoendiez, Goenkale popatik hartzera bidaliko dut. Egunen batean mahaian kolpe bat eman eta (melena eskuarekin eusten du, mehatsu eginez) Dena prest daukat.

*Txaketa zabaldu eta artazi eta makinillen “erakusketa” ikusten da. Mota askotako artaziak. Banan bana erakusten ditu.*

Hauek Madrilen erosi nituen. Beste hauek Toledokoak dira, eta horrekin dena esanda dago. Hauek Parisekoak. Navaja hau



Albaketekoa da, eta atzekaldeko ileak rasuratzeko erosi nuen. Makina alemana da, portatila, eta patillak egiteko tramankulu bat dauka hemen. (Pizten du) Soinu ederra, ezta? Ah, eta hauek kutunenak dira. Hauek XXXXXtik bidali zizkidaten... XXXXXXXn ambientaturik dago “Muerte de un viajante”.

Laster erabiliko ditut. Egun horretan Goenkale ikusten jarri eta esango duzue: “Aiba dios, non dago XXX?” (Artaziak erakutsiz) Eta ni, bitartean...

*Muerte de un Viajante*”-ren zati berberaren esaldi bat “interpretatzen” hasten da. Burua makurtzen du eta ilea begien gainean ipintzen zaio. Ilea hartzen du.

Ezin dun begien aurretik kendu? Jode!! Mila aldiz esan dinat “ez hadi nire begien aurrean ipini. Munduan gertatzen dena ikusi nahi dinat.” Hainbeste kostatzen zain ulertzea? (Ilea “brotxa” bat bezala hartu eta sudurrean kilikiliak egiten hasten da.) Etzan sudurra ikutu... ez zeukanat txantxetarako gogorik... (Berriro ikutzen du) Sudurra bakean uzteko esan dinat. (Berriro ikutzen du) Jolasteko gogoia, eh? Ondo dun, jolas dezagun. (Artaziak hartzen ditu beste eskuarekin) Ea sudurra berriro ikutzeko obariorik dunan... (Berriro ikutzen du lehenago baino alebositia gehiagorekin)

*Ilea eskutik askatzen du amorru bizian. Artazi handienak ateratzen ditu. Ile txorta lodibat hartzen du. Esku batean ilea eta bestean artaziak ditu. Ixilune luzea, suspentseko musikarekin lagundua. Iñaki gero eta urduriago, artaziak melenatik gero eta hurbilago. Baina halako batean, poltsikoan gordetzen ditu berriz, apal apal. Publikaori.*

Ehhhh... Zera... Ez dut nahi eskenatokia ilez beteta utzi... Geroago egingo dut, kamerinoetan... Edo etxean... Zaudete ziur. Laster ikusiko duzue egunkarietan: *Inaki Beraetxe en “Muerte de Un Viajante”*. Datorren astean... Edo datorren ilean... Edo datorren urtean... Beno, dena den, egunkarietan irakurriko duzue... Agur.

## MAIKEN BEITIA



Gabon. Asmakizunak gustatzen? Ea asmatzen duzuen zer den hau.  
*Txarloten moduan ibiltzen da.*

Euskaldun berri bat Txarlotena egiten. Eta hau?  
*Grouchoren ibilkera imitatuz.*

Euskaldunberri bat Grouchorena egiten. Eta hau?  
*Gasik gabeko txiskero bat buru gainean ipini eta txispak ateratzen ari dela, ibiltzen hasten da.*

Euskaldunberri bat autotxoketan. Eta...

Oh, barkatu, oraindik ez dizuet neure burua aurkeztu: Maiken... Maiken Beitia naiz, aktorea. Eta honezkero listoenek asmatu duzue, euskaldunberria. Iruñearra naiz... Beno, Iruñearra... Izatez Gazteizen jaioa naiz, handik gutxira familiarekin Iruñara joan nintzen, Bilbon lan egiten dut eta pisua Donostian erosi dut. Beraz: zer da hau? (Bere burua seinalatuz) Euskaldunberri burutik egindako bat.

Ni umea nintzelarik, Iruña euskeraren aldetik basamortu bat zen. Euskeraz hitz egiten zuten apurrek guztiz isolaturik bizi ziren. Haien inkomunikazioa imajinatzen dut. (Ohiu eginez) “Ehhh!!! Ba al dago euskaldunik hemendik?” “...endik... endik... endik” Ehhh!!! (...)“Euskeraz hitz egin nahi dut... ut... ut... ut.....” “Besterik ez diot bizitzari eskatzen... atzen... atzen... atzen...” “Beno, bai, dirua ua, ua ua...(…) maitasuna... suna... suna... suna (...) eta osasuna! (Grabaturik kriston burrundaia entzuten da “O-sa-su-na” eta abarreko ohiuak. Sustotik errekuperatzen denean, ohiuen gainetik

hitz eginez). ¡¡¡Sinistuidazue, garai hartan ez zitzaidan euskera ikastea burutik pasa ere egin!!!

*Ixiltasuna berriro.*

Nik euskera ikasteko erabakia Gazteizen hartu nuen, handik urte askotara. Teatro konpainia batean lanean nengoen. Han gehienak euskaldunak ziren. Gogoratzen naiz behin komunitate nentorrela eta euskeraz egiten ari ziren euren artean. Hurbildu nintzenean gastelaniaz egiten hasi ziren. Horretan euskaldunak oso “edukatuak” dira. A ze amorrua eman zidan. Katalanen moduan egingo balute, askoz azkarrago ikasiko genuke, baina ez, oso “edukatuak” dira.

Esatebaterako, hirugarren mailan zaude, eta lehedabiziko aldiz taberna batean edariak euskeraz eskatzera atrebitzen zara. Barrara hurbildu, txistua irentsi eta tabernariaren aurrean plantatzen zara, seguritatezko aurpegia ipintzen, nahiz eta barrutik flan bat baino urduriago egon. Tabernaria begira geratzen zaizu. Segundu eterno batzu pasazen dira, eta zuk oraindik ez duzu adorea bildu. Azkenean tabernariak apurtzen du ixilunea: “Zer nahi duzu?” Eta zuk: “Bi surito eta ur edalonchi bat”. Eta berak, “Ahora te pongo, maja”.Gauzak jaso, ordaindu eta burumakur bueltatzen zara lagunen artera, pentsatzen “Baina nola arraio konturatu da?”

Laugarren mailan z eta tz-ren ahozkapena lantzen duzu eta orduan tabernara bueltatzen zara. (Ahozkapena kontuz egiten) “Bi zurito eta ur edalontzi bat” Eta tabernariak: “Ahora te pongo, maja.”

Bosgarren mailan zera ikasten duzu ez dela “ur edalontzi bat” esaten, baizik “edalontzi bete ur” eta tabernara zoaz. “Bi zurito eta **edalontzi bete ur**”. “Ahora te pongo maja”

Zazpigarren mailan “edalontzi” ez omen du inork esaten, hori euskaldunberrien kontua dela eta mundu guztiak “basoa” esaten duela. .Tabernara zoaz eta “Bi zurito eta **baso** bete ur” “Ahora te pongo, maja”

Bederatzigarren kurtsoan “baso bete ur” oso pedantea omen dela, euskaldunberrien kontua. Orduan tabernara zoaz eta “Bi zurito eta **ura**” “Ahora te pongo, maja”.

Etsiturik zure lagunari esaten diozu: “Eskatu zuk, mesedez”. Zure laguna Errigoitikoa da, euskaldun peto petoa. Barrara hurbiltzen da eta: “Tssttt!! Bi zurito eta ura” Zure modu berberean!! Eta tabernariak. “Oraintxe bertan, neska”.

Orduan zu, zure onetik aterata, barrako baso eta taza guztiak besoaren kolpe bortitz batez lurrera jaurtitzen dituzu (Keinua egiten du) Mostradorera salto batez igotzen zara. Sekulako ixilxunea taberna osoan. Bezero guztiak zuri begira daude, harri harri eginda, tabernaria begiak zabal zabalik. Zure botaren takoi puntadunarekin tabernariaren eskua zapaltzen duzu. (Keinua) Tabernariak ohiu lazgarri bat botatzen du. “Ahhhhiiii”. Gero bere amantala lepo inguruan biltzen diozu, arnasa galeraziz. Tabernaria gorri gorri dago, itotzeko zorian. Zuk ez diozu batere kupidarik. Mundu guztia zuri begira dagoela dakizu eta horrek katxondo jartzen zaitu. Orduan esaten diozu: “Zergatik ez didazu euskeraz erantzuten, babu arraio horrek? Ni hemengo guztiak bezalakoa naiz. Eta hemendik aurrera euskeraz egitea nahi dut, koño!” Eta tipoak, “Bai, barkatu, barkatu, ez da berriro gertatuko.” “Hobeto denontzat. Eta orain entzuidazu: **bi zurito eta ura**. Argi dago? Eta segituan gainera!!”

Tabernaria askatzen duzu. Gaixoa ia lurrera jausten da, inpresioagatik. Clint Eastwood bezela zure lagunaren artera bueltatzen zara, pausua ondo markatuz. Arro zaude, eta zure lagunak ere arro daudela ikusten duzu. Agian ez duzu gerra irabazi, baina bataila inportante bat bai, behintzat. Orduan, barraren atzetik tabernariaren abotsa entzuten duzu: “**Ahora te pongo, maja!**”

Okerragoa gertatu zitzaion lagun bati. Bera ere euskaldunberria, baina Txillardegik baino hobe hitz egiten zuen, eta hala ere okindegian ogia euskaraz eskatu eta andreak erderaz erantzuten zion. Beti beti. Egun batean ezin izan zuen gehiago, eta andreaki

berreun peztako barra integrala ahotik sartu zion esanez: “Neuk ere euskeraz hitz egiteko eskubidea daukat!! Zergatik ez didazu euskeraz erantzuten, babu arraio horrek??” Andreak barra osoa irentsi zuenean erantzun zion: “P-o-r... porque no sé euskera, coño!!!” Beno, a ze plantxa!!

Euskaldunberrien ajeak... Euskaldunberritasuna gauza kurioa da, ze zuek entzun al diozue inori esaten “Ni euskaldunberria nintzenean...” Edo “Hori euskaldunberria izan zen aspaldi batean...” Ez, ez... Sekula santan. Bizitza guztirako da. “Beltza ala zuria izatea bezelakoa da” esango du baten batek. Ba ez, ze hori ere aldatu daiteke. Hor duzue Michael Jackson, esatebaterako. Gogoratu hau, errezagoa da kamelu bat orratz zulotik pasaraztea euskaldunberri bat euskaldun bihurtzea baino.

Eta ez nabil esajeratzen. Behin Harley Davison bat erosi nuen, Izugarri polita. Eta trajea? Narruzkoa, gorputzari pega pega eginda, eta txarto dago neuk esatea baina inpresionante nengoen. Estreinatuta nuen egunean, Leitzarango autobian gora herrixka batera heldu nintzen, Berastegi zuen izena. Lau baserri, eliza eta frontoia. Nire motorrarekin pasatu nintzenean mundu guztia zur eta lur utzi nuen. Ez naiz haritzen, motor sideral horretan, nire narruzko trajea eta nire kasko integralarekin extraterrestre bat nintzen han. Egoerarekin dibertiturik, azeleradoreari sakatu nion. “Broummm broummm...!!” Eta orduan haur batek eskuarekin seinatu zidan: “Begira, euskaldunberri bat”!!

Hori gehiegi izan zen nire gorputzarako. Gainera ez nuen lanik topatzen, eta dena popatik hartzea bidaltzea erabaki nuen. Bai lagunak, maletak egin eta Ingalaterrara joan nintzen inglesa ikastera.

Handik gutxira Ingalaterran nago, herrixka txiki eta itxusi batean. Alkilerreko pisu konpartitu bat hartzen dut, eta nire pisukideak aurkezten dizkidate. (“Eskua eman ez”) Orgasmópulos, Kortinatis eta Minganofilos, gutxi gora behera. Jode, ze izen xebreak, Ingalaterran ez bageunde, griegoak zaretela pentsatuko nuke! Kalera irteten naiz haizea hartzera. Kaletik mutil kuadrilla bat, futbol talde bateko kamisetekin: “Panatinaikos”. Taberna batera sartzen naiz. “Mikis

Teodorakis”en musika jarrita dago. Irten egiten naiz. Nire aurrean liburu denda bat dago. Dendaren izena: Aristoteles. “Baina zer da hau, ameskaizto bat?”-egin nuen ohiu. Baina bai zera, txarragoa zen: ameskaiztoak sikera bukatu egiten dira. Hura Greziar hauzoa zen. Beraz, hurrengo astean, inglesa ikasteaz aparte, griegozko hiztegi eta gramatika bat erosi nituen, nire pisukideekin gutxieneko komunikazio bat izateko.

Handik gutxira etxetik deitzen didate. “Maiken, Goenkaletik deitu dute. Datorren hilabetean frogara egin nahi dizute”. Handik aurrera goizez griegoa egiten dut... griegoa ikasten dudala esan nahi dut, arratsaldean inglesa, eta gauetan euskera. Guinnessen liburuan sartzeko moduan nago: euskaldunberri, ingelesberri eta griegoberri.

Hilabete beranduago, ETBn nago, Goenkalerako frogara egiten. Kamararen aurrean hitz egiteko eskatzen didate.: “XXXXX (Griegoz “hola”), I am Maiken Beitia naiz eta thyrtu four urte ditut eta... “kosmopopulos teodorakis...” Barkatu, I am very urdury...”Eta zuzendaria, “Lasaitu... Ea, egizu zerbait, kantatu, dantzatu...” Eta nik “Triki triki triki triki...”(Sirtaki bat dantzatzen) Berehala moztu zidaten. “Eskerri asko: kubana bat daukagu, eta italiana bat. Greziar bat edo ingeles bat behar dugunean deituko dizugu”.

Dena den ez nuen esperantza galdu. Euskera ikasten jarraitzen dut. Beti izango naiz euskaldunberria, baina ze arraio. Hogeitun urte barru, hainbeste ikastola eta hainbeste “D ereduarekin” denak euskaldunak izango zarete, eta zenbat euskaldunberri geratuko gara? Ni eta beste lau katu. Eta orduan pelikula edo serie batetarako aktore euskaldunberri bat behar dutenean, nor aukeratauko dute? (...) Efectivamente. Me voy a poner morada. Me vais a ver hasta en la sopa. Y perdón, pero es que me moría de ganas de hablar en erderaz. Agur!! Musuak denoi zuen parteetan... Barkatu, nere partetik esan nahi nuen.

## PATXI BISQUERT



*Aurkezleak joan eta gero, eskenatokia hutsik geratzen da, segundu batzutan. Tipo bat sartzen da, albañilez jantzirik, publikoaz erreparatu gabe, lasai lasai, txistu eginez edo. Buruan hautsaz babesteko txano bat du, eta karretilla bete tramankulu (paleta, amasadorea, kubo, plomada... denak oreka inestable xamarrean) eta orri biko eskilara bat daramatza. Karga lurrera erortzen zaio.*

**Patxi.**

Kagoenlaputa...

*Eskilara lurrean utzi eta karga karretillan kokatzen du. Eskilara berriro hartzera doanean, publikoaren presentziaz ohartzen da.*

(Hortzartean) Aiba la ostia... (Ez daki zer egin) Barkatu.

*Karretilla hartu eta ziztu bizian irteten hasten da. Abots batek geldiarazten du.*

**OFF.**

Patxi...! Patxi!! Egon pixka batean... Hara, barkatuko diguzu, baina broma txiki bat gastatu dizugu. Ez zaitugu ekarri igeltsero lana egiteko... Hau korrika kulturala da eta zu konbidatuen artean zaude, beste aktore batzurekin batera.

**Patxi.**

Aber, aber, aber... Ez dut ezer ulertzen. Orduan... Ez dut tabikea raseatu behar?

**Off.**

Ez...

**Patxi.**

Eta zer arraio egin behar dut?

**Off.**

Oso erreza. Nahi duzuna. Publikoari aktore bezela izan dituzun esperientziak eta kondatu...

**Patxi.**

Esperientziak...

**Off.**

Bai, anekdotak...

**Patxi.**

Ja... anekdotak eta... "Oso erreza", bai. No te jode, jeitsi zaitez zu hona eta egin zazu zuk erridikuloa, hara bestea... (Kerretilla berriz hartzera doa)

**Off.**

Patxi... Aspaldian ez duzu publikoaren aurrean egoteko aukerarik. Alperrikalduko duzu?

**Patxi.**

Ba bai.

**Off.**

Ja... Ulertzen dut. Ez zara ausartzen.

**Patxi.**

Ezetz? Kagoenlaputa... (Karretilla lagatzen du) Non dago fokoa?  
*Amorraturik, eskenatokiaren erdian kokatzen da, argi betean. Txanoa kentzen du.*

**Patxi.**

Gabon. Patxi naiz... Patxi Bisquert... Zuetako baten batek ezagutuko nau... Zineman edo telebistan ikusita...: "Segobiako ihesa" "Tasio".(besteren bat gehitu, Patxik aukera dezala) Aktorea naiz... Beno, nintzen... Beno, ez dakit oso ondo. (...)Buah... Nork uste behar zuen... Hainbeste denboraren ostean... eskenatoki batean berriro egongo nintzela... publikoaren aurrean. Eta gainera inprobisatzen... Gidoirik gabe... Neuk bakarrik... "Solo ante el peligro."

*Segundu batzu ixilik geratzen da. Gero alde egiten hasten da, baina pata batetik zahato bat jaurtitzen diote. Patxik tragu luzea ematen dio.*

Eskerrik asko. (Publikoari) Ia erabat utzita daukat. (...) Ardoa ez, aktore lana esan nahi dut. Orain konstrukzinora dedikatzen naiz. Beno, ze txorrada, hori bistan dago. "Bisquert eta ...." (Enpresaren benetako izena): baserriak konpontzen ditugu, teilatua egin... (Poltsikotik txartelak ateratzen ditu eta publikoaren aurreko filatik



banatzen hasten da) Hor duzue telefonoa, faxa eta korreo elektronikoa. Zerbait behar baduzue ere...

*Eskenatokira igotzen da berriz ere.*

Gustora nago... Nire ofizioan, esan nahi dut. Ez dut batere faltan botatzen lehengo garaia... Baterez. Orain puta madre nago, puta madre. Eta gu ere artista gara, ze arraio. Gertatzen dena zera da, gurea ez dela baloratzen. Mundu honetan bakarrik baloratzen da periodikoetan eta telebistan agertzen dena. Baina gure lana artea da. Harrizko murru bat egitea, esatebaterako. Baserri bat ikusten duzuen hurrena, fijatu zaitezte. Mendeetako jakinduria dago hor sartuta. Harri bakoitza aukeratu... Harri guztiak desberdinak dira, eta bakoitzak nortasun berezia du, bakoitzak toki zehatz bat dauka horman, eta artista batek bakarrik asmatzen du harri bakoitza non kokatu. Goroldioaz estaliriko harriak ditut nik gogokoen. Artelan bat da harri bakoitza, eta harrizko murru bat kapilla sixtina bat. Ja! Antonio banderas ikusi nahiko nueke holakorik egiten!

*Zahatoari beste trago luze bat kentzen dio.*

Ez dut faltan botatzen lehengo garai horiek, keba! Prentsaurrekoak, entrebistak, hotelak, autografoak... Bufff... Utikan!! Askoz lasaiago bizi naiz orain, konparaziorik gabe. Bai horixe! Ondo nago, puta madre. Puta madre... Neure buruaren jabe naiz... Sekulako askatasuna daukat... Gehienetan kanpoan egiten dugu lan, arnas garbia hartzen. Lan fisikoa gogokoa dut. Eta sasoiari mantentzen naiz.

*Lurrean utzitako eskilera hartzera doa edo karretilla tokiz aldatzera, eta eskuak giltzurrintara eramanez ohiu egiten du. Erdi okerturik hitz egiten jarraitzen du.*

Dioooosss!! Arazo bakarra lumbagoarena da. Mekagoensotz!! Lumbagoagatik ez balitz puta madre egongo nintzateke, benetan, puta madre... Baina lumbago madarikatu hau...

*Eskilara zabaldu eta mail batean esertzen da.*

Zertan nenbilen? Ah, bai, nire ofizio hau ez dagoela hain txarto. Txarrena zera da, zahartzaro eskaxa duela. Aktore bat esatebaterako hobeto iristen da zahartzarora: hor duzue Alfredo Landa edo Paco Rabal, esatebaterako... Nire ofizioan berriz, hirurogeitik urtetik aurrera, akabo. Eta autonomo gisa ibiltzen garenez, ba jubilazio urria derrigor.

*Beste tragu luze bat. Edan ahala ez da mozkortuko, baina bai bere hizpidea bizkortu, eta bere samindu.*

Baina beno, dena den ez dut aldatzen oraingo bizimodua. Buaffff... Lasaitasuna oso inportantea da, lagunak... Aktore lana oso estresantea da, paperean sartu behar duzu eta hori ez da ona buruarentzat. “Segoviako ihesa” filmatu genuenean, paperean gehiegi sartu nintzen eta burua pixka bat nahastu zitzaidan: gauez, lo nengoela, ohetik altzatu, izareak lotu eta lehioetik eskapatzen nintzen... Gauero. Eskerrak beheko planta batean bizi nintzela, bestela...

Eta Tasion? Badakizue nik han ikazkinarena egiten nuela. Pelikula filmatu eta hurrengo gabonetan, Olentzeroa neu nintzela sinistra iritsi nintzen. Segurata batek harrapatu ninduen, Korte Inglesean, zaku batean opariak sartzen. “Ondo portatu diren umeentzat dira” esan nion inozo honek tipoari. Azkenean ez zidaten ezer egin, famatua nintzelako. Autografo pare bat firmatu eta aide, kalera.

Orain ez naiz famatua, baina ondo bizi naiz, lasai lasai... Batere estresik gabe. Beno... estressa, hile bukaeran etxeko kreditua pagatzeko orduan, estress pixka bat izaten dut, ez pentsa. Ofizio hau ez dago ondo pagatuta. Horregatik, gaur goizean deitu didatenean horma bat raseatzeko, nik ezetz esan diot, ez dela nire espezialitatea, baina zenbat pagatuko zidaten jakin dudanean, ez dut dudarik egin. “Jode, pentsatu dut neure artean, aktoreen moduan pagatzen dute hauek”. Orain ulertzen dut. Bai, ofizio hau gaizki pagatuta dago, baina bestela oso ondo nabil. Gustora. Puta madr...

*Azkeneko hitzekin batera publikoari bizkarra eman eta eskilara ixten aritu da. Eskilara ixtean, behatz lodia harrapatu egin du. Behatz lodiari beste eskuarekin eusten diolarik, karrasika hasten da.*

Ahhh, la madre ke lo pario... Dios!! Ahhhh!!! Jode, beti hatzamar puta berdinean, la pu... (Publikoari begira) Barkatu... barkatu holan jartzea, baina honek ba du delitua: laugarren aldia da aste batean hatzamar berbera izorratzen dudala: Astelehenean harri bat erori zitzaidan, harri tzar bat, bere ditxosozko goroldio eta guzti. Herenegun mazarekin jo nuen bete betean. Atzo nire sozioa deabruek daramatela, aitzurrarekin, eta orain hau... Eta eskatu zazu baja bat... Ja!! Guk ez daukagu eskubide hori...

*Beste tragu bat.*

Aktoreak bai, la letxe, aktoreak ondo bizi dira... Aktoreak erregeen bizimodua daramate... Eta baten bat kexaka hasten bazaizue, aizue, ez egiozue kasurik egin, kexatzeko arrazoirik batere ez duelako. Erregeen moduan bizi dira aktoreak... Jode, ondo gogoratzen naiz. Nik artean ez nion garrantzi handirik eman, badakizue, denetara ohitzen da bat. Filmatzera kotxez eramaten zaituzte txofer eta guzti. Filmazioan euria egiten hasten bada, meritorio bat hurbiltzen zaizu euritako bat zabaldurik. Hotz egiten badu, beste batek bere abrigua utziko dizu... Jakina, aktorea lesionatzen bada, pikutara pelikula osoa, eta hori ditu mordoia da. Figuranteekin, ordea, ez dago hainbesteko miramientorik...

*Beste tragu bat.*

Sekreto bat kontatuko dizuet. Duela gutxi figurantearena egin nuen pelikula batean. Montxo Armendarizen azkena. "XXXXXX" (Tituloa) Neuk deitu nion. "Montxo, Patxi nauk, aizu, zure pelikulan lan egin nahi dut." Montxo laguna daukat aspalditik, Tasio egin genuenetik, eta estu eta larri erantzun zidan. "Barkatu, Patxi, baina erreparto guztia banatuta dago, ez daukat zuretzako ezer". Eta nik, "Emaidazu figurazio bat". "No jodas, Patxi, nola egingo duzu figurantearena!" Azkenean amore eman eta figurazio bat eman zidan. Asteak eman ditut "makiz" jantzita, Nafarroako

mendietan gora eta behera. Ez nuen hitzik egiten eta pelikulan apenas ikusiko naute, baina nik egin nahi nuen. Ze arraio. Kriston monoa neukan. Gainera, horrekin zera adierazi nahi nuen, nik ez diodala aktore izateari utzi... Jarraitu egin nahi dudala. Eta hutsetik hasteak ez didala ajolik.

*Tragu bat.*

Ze ofizio honetan... zera gertatzen da. Zerrendatik ezabatzen bazaituzte, akabo, hilda bezala zaude. Ba jakin dezatela, hemen nago, eta oraindik ere gerra emateko prest.

Bai, ba... Faltan botatzen dut hango guztia... Kamarak, fokoak, klaketa (Imintzioa eginez) “Tasio, eskena zazpigarrena, bigarren toma, klak!!! Dios, adrenalina maila teilatu puntan!! (...) Eskena horretan ni lanean nago. Mutiko gaztea egur metara igo da. (Eskilara zabaltzen du, egur metarena eginez) Goian dagoelarik, halako batean, estrukturak huts egin eta mutiko gaixoa sutara jausten da. Ni bere laguntzan igotzen naiz. Estruktura oso kaltetuta dago eta edozein unean neu ere sutara erori naiteke, baina hala ere ez naiz kikiltzen. “Eutsi motel” ohiukatu eta eskua luzatzen diot eta orduan... Ahhhhhh!!!!

*Eskuak gerrira eramaten ditu.*

Kaguendiez, lumbago puta hau... Ah... Diooooooss!

*Erregidorea sartzen da.*

**Erregidorea.**

Laguntzarik behar?

**Patxi.**

Ez... Beno, bai, lagunduidazu jeisten. Diosss... Kontuz... Hori da...

*Patxi erregidorearen laguntzarekin lurrera jeisten da, kexuka.*

Beno, lagunak, plazer bat izan da zuen aurrean egon izana... Eta milesker Korrikari nirekin akordatzeagatik. Eutsi goiari. (Erregidoreari) Zuk, mesedez, trastoak hartuko? (Erregidoreak trastoak ateratzen ditu) Eskerrik asko. Agur!